

**PLE-KO KIDE DIREN ENTITATEEN  
ARTEKO MUGAZ HARAINDIKO LANKIDETZARAKO  
ADMINISTRAZIOEN ARTEKO HITZARMENA**

**BILDUTA:**

María Ubach Font And., Andorrako Printzerriko Mugaz Haraindiko Lankidetzarako Erakundearen Presidentea

Alain Rousset Jn., Frantziar Errepublikaren Akitania Berriko Eskualde Kontseiluaren Presidentea

Francisco Javier Lambán Montañés Jn., Espainiako Erresumako Aragoiko Gobernuaren Presidentea

Joaquim Torra i Pla Jn., Espainiako Erresumako Generalitat de Cataluñaren Presidentea

Iñigo Urkullu Renteria Jn., Espainiako Erresumako Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria

Carole Delga And., Frantziako Errepublikako Okzitaniako Eskualdearen Kontseiluaren Presidentea

Uxue Barkos Berruezo And., Espainiako Erresumako Nafarroako Gobernuaren Presidentea

Mugaz Haraindiko Lankidetzarako Andorrako Erakundearen, Akitania Berriko Eskualdearen, Aragoiko Autonomia Erkidegoaren, Kataluniako Autonomia Erkidegoaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Okzitania Eskualdearen eta Nafarroako Foru Erkidegoaren **IZENEAN ETA ORDEZKARITZA GISA**, hurrenez hurren, eta elkarri bakoitzaren betekizunak onetsita, Hitzarmena emateko lege-ahalmenarekin,

**KONTUAN HARTUTA** Europako Batzordearen eta Europar Batasunaren europar herrien arteko lotura estuagoak lortzeko eta haien arteko lankidetzaz sustatzeko helburua, Europa sendoagoa eraikitze aldera,

**ERABAKITA** euren artean harremanak eta ekintza komunak areagotu nahi dutela, Pirinioetako bi aldeetako lurraldeen ekonomia eta gizartearen hobekuntza areagotzeko,

**JAKINDA** mugaz haraindiko lankidetzaz bizitako esperientziak bakoitzaren lurraldeen garapenarentzat eta birbalorizazioarentzat onuragarriak izan direla,

**ONARTUTA** emaitzak optimizatzeko mugaz haraindiko harremanen efikazia, jarraitutasuna eta jarraipena bermatzeko tresna juridiko baten beharra dagoela,

**ERABAKITA** lankidetzaren euren barne-eskubideen errespetuaren barruan sustatu nahi dutela,

Lurralde-entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzaren Espainia eta Frantziaren arteko Ituna **BETEAZ**, zeina Baionan sinatu zen 1995eko martxoaren 10ean, erkidegoen edo lurraldeko agintarien arteko mugaz haraindiko lankidetzari buruzko Europako Kontseiluaren Esparru Hitzarmena beteaz, zeina Madrilen sinatu zen 1980ko maiatzaren 21ean,

Lurralde-entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzaren Espainia eta Frantziaren arteko Itunaren Zuzenketa eta Andorrako Printzerriaren Atxikitze Protokoloa **BETEAZ**, Andorra la Vellan 2010eko otsailaren 16an sinatua,

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoan Andorrako Erakundea Atxikitze Hitzarmena **BETEAZ**, zeina 2012ko azaroaren 15ean sinatu zen Iruñan, zeinaren 3. artikuluan zehazten den administrazioen arteko hitzarmen hori berritzeko erabakian Mugaz Haraindiko Lankidetzarako Andorrako Erakundea sartu behar den,

Frantziako 2015-29 Legea, 2015-01-16koa, **BETEAZ**, zeinen bitartez bi eskualde sortu diren, Nouvelle Aquitaine eta Occitane, 2016/01/01 ondoren, Partzuergoaren kide izateko 2005eko administrazioaren hitzarmena sinatu zuten hiru eskualdeak ordezkatzeko (Aquitaine, Languedoc-Roussillon eta Midi-Pyrénées),

CTPko kideak diren entitateen arteko mugaz haraindiko lankidetzarako Administrazioen arteko Hitzarmena berritzeko adostasuna **BETEAZ**, zeinaren bitartez Pirinioetako Lan Elkartea eratzen den, 2015eko urriaren 29an Andorra-la-Vellan sinatuta.

Hitzarmen hau **FORMALIZATZEA ERABAKI DUTE** hurrengo klausulekin:

### Lehena

Administrazioen arteko Hitzarmen honen xedea 2005ean Partzuergoa eratzeko Hitzarmena berrikustea da, 2015-01-16ko Frantziako 2015-29 Legearen ondorioz eskualde berriak sortu baitira entitatearen sorreran parte

hartu zuten hiru eskualde ordezkatzuz, eta haiei egokitzeko, eta baita Partzuergoa Aragoiko Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioa atxikitzeko ere.

### Bigarrena

Mugaz Haraindiko Lankidetzarako Andorrako Erakundea, Akitania Berria Eskualdea, Aragoiko Autonomia Erkidegoa, Kataluniako Autonomia Erkidegoa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Okzitania eskualdea eta Nafarroako Foru Erkidegoak osatzen dute Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoa, eskubide publikoko elkargo gisa, izaera juridiko propio eta bereziarekin, Hitzarmen honekin batera doazen Estatutuetan jasotakoarekin bat.

### Hirugarrena

1. Entitate horiek Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren Estatutuetao
2. artikuluan aipatzen diren helburuak betetzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzeko konpromisoa hartzen dute.
2. Hitzarmen honek sinatzen duten entitateak bakarrik konprometitzen ditu.
3. Funtzionatze-gastuen finantza-banaketan alderdi bakoitzari portzentaje berbera dagokio. Inbertsio-eragiketei dagokienez, Partzuergoko alderdiek Partzuergoaren erabaki-organoek onetsitako irizpideak jarraituko dituzte.


### Laugarrena

Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoak egoitza Pirinioetako Lan Elkartean Jakan duen egoitzan ezarri da (Aragoi). Hitzarmena sinatu duten alderdien obligazioei dagokien Zuzenbidea Espainiako Zuzenbide publikoa izango da.


Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoak, Sektore Publikoaren Araudi Jurikoaren 40/2015 Legearen 120, 121 eta 122 artikuluetan aurreikusitako ondorioei dagokienez, Aragoiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioari atxikita geratuko da.

Hitzarmen hau gauzatzeko orduan gerta daitezkeen auzi juridikoak Espainiako administrazioarekiko auzien jurisdikzio aurrean ebartziko dira.

### Bosgarrena




Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergora lurralde-entitate berriak sartzeko, aurretik Batzorde Betearazleak eztabaidatu eta Osoko Bilkuran onetsi ondoren, Atxikitze-hitzarmena sinatu beharko da eta Estatutuak aldatu beharko dira. Baionako Itunaren ondorioetarako, eta bereziki Espainiako, Andorrako eta Frantziako barne Zuzenbideetan ezarritako prozedurak betetzeko, Atxikitze-hitzarmenak mugaz haraindiko lankidetzaz hitzarmen izaera izango du.






### Seigarrena

Hitzarmen honek hamar urte iraungo ditu sinatu denetik, eta beste hamar urtez luzatu ahal izango da hitzarmena sinatzen dutenek hala nahi dutela adierazten badute.



### Zazpigarrena


Entitate parte-hartzaileek hitzarmena hau onesteko euren barne zuzenbideetan ezarritako prozedura jarraituko dute.




Zaragozan, 2018ko azaroaren 13an egina, zazpi aletan, frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz, katalanez eta okzitanieraz, eta bost testuek balio dute.




María Ubach Font And.  
**Mugaz Haraindiko Lankidetzarako  
Andorrako Erakundearen  
Presidentea**




Alain Rousset Jn.  
**Akitania Berriko Eskualde  
Kontseiluaren Presidentea**



Francisco Javier Lambán Montañés Jn.  
**Aragoiko Gobernuaren Presidentea**




Joaquim Torra i Pla Jn.  
**Kataluniako Generalitat-aren  
Presidentea**



Iñigo Urkullu Renteria Jn.  
**Eusko Jaurlaritzako  
Lehendakaria**



Carole Delga And.  
**Okzitaniako Eskualdeko  
Kontseiluaren presidentea**



Uxue Barkos Berruezo And.  
**Nafarroako Gobernuaren  
Presidentea**